

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sondikako Udala**

**Sondikako udalerrian prestakuntza-ekintzak egiten dituzten langabeen enplegua sustatzeko laguntzak emateko oinarriak eta deialdia onestea (2020ko abenduaren 16an izandako ohiko batzarreko Akordioa).**

Sondikako Udalak Sondikako udalerrian prestakuntza-ekintzak egiten dituzten langabeen enplegua sustatzeko laguntzak emateko oinarriak eta deialdia onesteko prozedura ireki du. Prozedura aztertuta eta Udal Teknikariaren txostenarekin bat etorritik, Udaltzako, 2020ko abenduaren 16an, aho batez, erabaki du:

*Lehenengoa:* Sondikako udalerrian prestakuntza-ekintzak egiten dituzten langabeen enplegua sustatzeko laguntzak emateko oinarriak eta deialdia onestea.

*Bigarrena:* Kontu-hartzaitzak deialdia argitaratu beharko du Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikulua araberaren arabera.

Sondikako elizatean, 2021eko otsailaren 5ean. — Alkatea, Xabier Zubiaur Agirre

**SONDIKAKO UDALERRIAN PRESTAKUNTZA JARDUERAK EGITEN DITUZTEN LANGABEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMAN SARTZEKO DEIALDIA****1. Deialdiaren helburua**

Oinarri hauen xedea da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emana duten, Sondikako erroldan sartuta dauden eta arautu gabeko prestakuntza jarduerak egiten dituzten langabeei edo enplegua hobetzen ari direnei laguntzak emateko baldintzak arautzea.

**2. Onuradunak**

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan daitezke honako betekizun eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- a) Sondikan erroldatuta egotea, gutxienez 2020/01/01etik aurrera. Ofizioz egiaztatuko da hala dela.
- b) 2021eko urtarrilaren 1ean 18 urte edo gehiago edukitzea.
- c) Langabezian edo enplegua hobetzeko egoeran egotea. Laguntza hauen ondo-riotarako, enplegu hobekuntzat hartzeko, aktibo egon behar da, astean 20 ordu baino gutxiagoz lan eginez.
- d) Egin beharreko prestakuntza jarduera Sondikako Udaleko Toki Garapenerako Agentziak (Egaz Txorierri) onartu behar du, pertsonaren lanbide profilaren arabera «Egokitasun kontrastea» egiteko helburuarekin.
- e) Prestakuntza jarduera erabat gainditzea, hau da, prestakuntza jarduera eta hura osatzen duten irakasgai guztiak gainditu behar dira.

**3. Diruz lagun daitezkeen jarduerak**

Prestakuntza horren helburua da enplegarritasuna hobetzea eta lan merkatuan sartzeko aukerak handitzea. Alde horretatik, diruz lagundu ahal izango dira enplegarritasuna handitzen duten era guztietako ikastaroak, salbu eta hizkuntza ikastaroak eta gidabaimenak.

Prestakuntza jarduera bakarrerako eskatu ahal izango da laguntza, hau da, pertsona batek ezin du laguntza eskaera bat baino gehiago egin.

**4. Baliabide ekonomikoak**

Deialdiaren diru zuzkidura 8.000,00 eurokoa izango da guztira, «Irabazi asmorik gabeko familiei eta erakundeei» izeneko 430.480 aurrekontu partidaren kargura.

**5. Laguntzen zenbatekoa**

Gehienez ere 400 euroko laguntza eman ahal izango da. Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartzen dira:

- Prestakuntza jardueraren kostua. Jardueraren benetako zenbatekoa lagunduko da diruz.
- Prestakuntza zentrora joateko garraio gastuak: benetako zenbatekoa lagunduko da diruz, gehienez ere 50 euro.

Oro har, garraibide publiko kolektiboetan egingo dira joan-etorriak, salbu eta, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta, ibilgailu partikularra edo beste bide bat erabiltzea komeni denean. Inguruabar horiek dirulaguntzaren eskabide orrian zehaztu beharko dira.

Bidaia gastuetarako txartelaren zenbatekoa ordainduko da, eta, ibilgailu partikularra erabiltzen denean, egindako ibilbiderako ateratzen den zenbatekoa, Sondikako udalerrira hartuta abiapuntutzat eta itzulera puntutzat (ibilgailu partikularra erabiltzeagatik) dirulaguntza: 0,29 euro/km).



## 6. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta helburu bererako emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.

## 7. Eskaren aurkezpena

Kontratatorako laguntza eskaera eta eskatutako dokumentazioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik eta 2021eko urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango da.

- a) Lekua eta ordutegia: Dirulaguntzaren eskabidea eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dira:
  - Sondikako Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez.
  - Sondikan, Goronda Gane bidean dagoen Sarrera erregistroan, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Dirulaguntza lortzeko eskaeran dokumentu hauek sartu beharko dira:
  - Langabetuek edo enplegua hobetzeko egoeran daudenek prestakuntza jarduerak egiteko dirulaguntzaren eskabidea, behar bezala beteta.
  - Eskatzailearen NANaren edo agiri baliokidearen fotokopia.
  - Legezko ordezkariaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo agiri baliokidea eta ordezkariari dagokion agiri bidezko egiaztapena. Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz egiaztatu ahal izango da (notario ahalordeak, eskriturak...).
  - Eskatzailearen banku kontuaren titulartasunaren egiaztagiria, bat etorri behar duena eskatzailearen nortasunarekin. Dokumentu hauetako edozein izango da baliozkoa: banku laburpena, libreta, banku erakundeak emandako ziurtagiria edo «Titular kontua» inprimakia, banku erakundeak behar bezala beteta eta zigilatuta.
  - Prestakuntza jarduerari dagokion matrikula orria.
  - Langabezian egonez gero, LANBIDEk emandako inskripzio aldien ziurtagiria/txostena edo Lan bizitzaren txosten eguneratua.
  - Enplegua hobetzeko egoeran egonez gero, Lan bizitzaren txosten eguneratua.
  - Prestakuntza jardueraren «Egokitasunaren egiaztapena» dokumentua, Sondikako Udaleko Toki Garapenerako Agentziak (Egaz Txorierri) egina, "Gai da" balorazioarekin.
- c) Zuzenketa edo gabeziak: Eskabideak ez baditu oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen, osatu gabe badago edo akastuna bada, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, adieraziko zaio, hala egiten ez badu, atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

## 8. Emateko irizpideak

Emakida zuzeneko erregimenean emango da laguntza, banakako ebaluazio sistemen bidez eta eskaeren aurkezpen hurrenkera errespetatuz, hau da, erregistro zenbakiaren arabera.

## 9. Prozedura

### a) *Analisisa eta ebaluazioa*

Eskabideak izapidetzea onartu eta gero, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, horien balorazioa egingo da, haien artean lehentasun hurrenkera bat ezar-



tzeko, 8. oinarrian ezarritako haztapan irizpideen arabera, eta finantzaketarako funtsak agortu arte esleitzea proposatuko da.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 63. artikulua arabera, itxarote zerrenda bat sortuko da, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta eta, hala badagokio, aurkeztutako hurrenkeran, oinarri hauetan ezarritako baldintzak beteta ere deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzen delako aintzat hartu ez diren eskabideekin, gerakinak egonez gero Enpresa onuradunek dirulaguntzari uko egiteagatik edo ezarritako baldintzak ez betetzeagatik, organo emaileak, deialdi berririk egin beharrik gabe, itxaron zerrendako ordenaren arabera dirulaguntza emateko aukera izan dezan, kreditua agortu arte.

Ebazpen proposamena ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio, berariaz adieraziz eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu den, hau da, Sondikako Udaleko Alkatetzari.

#### b) *Ebazpena*

Aipatutako proposamena ikusita, Sondikako Udaleko Alkatetzak ebazpena emango du.

Langabeek edo enplegagarritasuna hobetzeko diharduten pertsonen prestakuntza jarduerak egiteagatik dirulaguntzen ebazpena BAO n eta Udaleko iragarki taulan argitaratuko da, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, adierazten direlarik dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta dirulaguntzaren justifikazioa.

Ebazpenak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 2021eko azaroaren 30a izango da. Epe hori igarota, dirulaguntzaren eskabidea onartutzat hartuko da, aurretik ez bada berariazko ebazpenik ematen.

Deialdi honi dagozkion izapideak arintzeko, laguntzen eskatzaileek helbide elektronikoko operatibo bat eduki beharko dute gaituta, izapideak irauten duen bitartean, dokumentazioa aurkeztean atzemandako akatsak zuzentzeko edo eskatutako laguntzak modu arin eta eraginkorrean ebazteko beharrezkoa den beste edozein errekerimendu egiteko, legean ezarritako moduan.

Sondikako Udaleko Alkatetzaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, horren aurka, berraztertzeko errekurtoa aurkez dakioke organo horri, hila-beteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkez daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

### **10. Laguntza ordaintzea**

Laguntzak ordainketa bakarraren bidez ordainduko dira, prestakuntza jarduera egin dela justifikatu eta dirulaguntza emateko eskatzen diren baldintzak bete eta gero, dirulaguntza emateko baldintzak egiaztatzeko ezartzen diren kontrolak alde batera utzi gabe.

Horretarako, onuradunak deialdi honen 11. oinarrian zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Dirulaguntza ez da ordainduko, baldin eta eskatzaileak justifikatu gabe badu justifikazio epea amaituta duen dirulaguntzaren bat. Era berean, ez da ordainduko, baldin eta eskatzaileak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu eta gero.

### **11. Justifikatzeko agirien aurkezpena**

Laguntza horiek justifikatzeko eta haien helburua betetzeko, dirulaguntzaren onuraduntzat jotako eskabidea aurkeztu duten pertsonen beren prestakuntza jarduera egiaztakoa dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte 2021eko abenduaren 16ra bitartean, oinarri hauetan jasotako baldintzak betez.

- a) Lekua eta ordutegia: Kontratazioaren frogagiriak aurkeztuko dira:
  - Sondikako Udalaren egoitza elektronikoen bitartez.



- Sarrera erregistroan, Sondikan, Goronda Gane bidean, 1. zenbakian, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara.

Justifikatzeko dokumentazioak oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, osatu gabe badago edo akastuna bada, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, ez-betetzat joko dela eta dirulaguntza itzul dezan ebartziko dela.

- b) Aurkeztu beharreko agiriak: Onuradunek kontratazioaren justifikazioa egin beharko dute, egiaztagiriak aurkezteko ereduaren bidez, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:
  - Dirulaguntza justifikatzeko inprimakia, langabeek edo enplegua hobetzeko egoeran daudenek prestakuntza jarduerak egin ditzaten, behar bezala beteta.
  - Prestakuntza jarduera erabat gainditu izanaren egiaztagiria.
  - Prestakuntza jardueraren ordainagiria.
  - Joan-etorrien gastuak ordaintzeko eskatuz gero, ikastarora joan diren egunen ziurtagiria (prestakuntza jarduera eman duen zentroak emana) eta egindako bidaien ordainagiriak (txartelak, Barik txartelaren mugimenduak, etab.). Garraio partikularreko joan-etorrien kasuan, dirulaguntzaren eskatzailea ibilgailuaren titularra edo baimendutako pertsona dela egiaztatzen duen agiria.

Jasotako egiaztagiri guztiak aztertu ondoren, prestakuntza jardueretarako laguntzen behin betiko zerrenda argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki taulan.

## 12. Onuradunen betebeharrak

Dirulaguntza hauen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Oinarri hauetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzea.
- Laguntza honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz fiskalizazio eginkizunak betetzean eskatzen zaion informazioa ematea.
- Hitzartutako baldintzetan izandako edozein aldaketaren edo kontratazioaren ondoren sortutako arazoek berri ematea unean-unean.
- Gainera, diruz lagundutako laguntzarekin lotuta, egoki iritzitako ikuskapen guztiak egin ahal izango dira.

## 13. Ez betetzea eta laguntza itzultzea

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, bai eta dirulaguntza ordaintzen den unetik dagozkien legezko interesak eskatu ere, baldin eta onuradunek betetzen ez badituzte deialdi honetan, dirulaguntza emateko ebazpenean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak; hori guztia, ez-betetzearen ondorioz bidezkoak diren ekintzak alde batera utzi gabe.

Sondikako Udaleko Alkatzaren ebazpen bidez adieraziko da betetzen ez dela, eskatzailea kanpoan utzi dela, dagozkion laguntzak itzuli egin behar direla eta jasotzeke dauden laguntzak jasotzeko eskubidea galdu dela.

## 14. Datu pertsonalen babesa

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Sondikako Udalak jakinarazten du oinarri hauek izapidetzea eragin duen dokumentazioan agertzen diren datu pertsonalak Sondikako Udala titular den fitxategi batean sartuko direla, kontratazioarako laguntzen deialdi hau kudeatzeko helburuarekin.

Nolanahi ere, interesdunari informazioa ematen zaio eta baimena ematen du bere datuak aipatutako helbururako tratatzeko, bai eta aholkularitzei, erakunde publikoei, fundazioei, elkartei edo finantza erakundeak lagatzeko ere, enplegu politika aktiboak kudeatzeko, lan merkatuan bitartekotza egiteko eta lan merkatuari buruzko azterlanak eta analisiak egiteko.



## 15. Azken xedapena

1. Laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.
2. Erakunde interesdunek eskabidea aurkezteak berekin dakar dagozkion oinarriak erabat onartzea.



**LANGABEZIAN EDO ENPLEGU-HOBEKUNTZARAKO DAUDEN PERTSONEK  
PRESTAKUNTZA-EKINTZAK EGITEKO DIRULAGUNTZAREN ESKAERA  
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA QUE PERSONAS DESEMPLEADAS O EN SITUACIÓN  
DE MEJORA DE EMPLEO CURSEN ACCIONES FORMATIVAS**

**Eskatzailea / Solicitante**

Izena Nombre							
1.go abizena Apellido 1				2. abizena Apellido 2			
NAN, IFZ... DNI, NIF...							
Kalea Calle							
Zenbakia Número		Km Km		Pegora Portal		Blokea Bloque	
Solairua Piso		Eskailera Escalera		Atea Puerta		PK CP	
Herria Población				Probintzia Provincia			
Herrialdea País				Telefonoak Teléfonos			
Faxa Fax				e-maila email			
Egoera Situación	<input type="checkbox"/> Langabezia / En desempleo <input type="checkbox"/> Enplegu-hobekuntza / Mejora de empleo						

Dirulaguntza jasotzeko kontua (IBAN: 24 digitu) / Cuenta para cobro de subvención (IBAN 24 dígitos)

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

**Legetzko ordezkaria / Representante legal**

Izena edo izen soziala Nombre o razón social							
1.go abizena Apellido 1				2. abizena Apellido 2			
NAN, IFZ... DNI, NIF...							
Kalea Calle							
Zenbakia Número		Km Km		Pegora Portal		Blokea Bloque	
Solairua Piso		Eskailera Escalera		Atea Puerta		PK CP	
Herria Población				Probintzia Provincia			
Herrialdea País				Telefonoak Teléfonos			
Faxa Fax				e-maila email			

**Prestakuntza - ekintza / Acción formativa**

--

Garraioa  
Transporte

Ibilgailu partikularra / Vehículo particular

Garraio publikoa / Transporte público

**Aitorpenak / Declaraciones**

Hau sinatzen duenak —datuak goian— BERE ARDURAPEAN, HAUXE AITORTZEN DU:  
El/la firmante, cuyos datos se indican, DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD que:

**Dirulaguntza honen xede den jarduera burutzeko: / Para ejecutar la actividad objeto de la subvención:**

Beste laguntza batzuk eskatu eta/edo eskuratu direla. / SI se han solicitado y/u obtenido otras ayudas.

Ez dela eskatu eta eskuratu beste laguntzarik; eskatu den bakarra Sondikako udalari eskatu zaiona izan dela.  
NO se han solicitado ni obtenido otras ayudas que la correspondiente a la solicitada al Ayuntamiento de Sondika.**Eskatzen den dirulaguntzari dagokionez: / Respecto a la subvención objeto de la solicitud:**Eskatzaileak deialdian ezartzen diren baldintza guztiak bete eta oinarriak goitik behera onartzen dituela.  
El/la solicitante reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y acepta íntegramente las bases.Eskatzaileak deialdian ezartzen diren baldintza guztiak EZ dituela betetzen eta/edo oinarriak EZ dituela goitik behera onartzen.  
El/la solicitante NO reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y/o que NO acepta íntegramente las bases.**Zerga-betebeharrei dagokionez: / Respecto al cumplimiento de las obligaciones tributarias:**Eskatzaileak egunean dituela indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aurrean dituenak;  
baita Sondikako udalarekin dituen zerga-betebehar guztiak ere.  
El/la solicitante se encuentra al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, así como de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Sondika.Eskatzaileak EZ dituela egunean indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzaren aurrean dituenak;  
eta/edo Sondikako udalarekin dituenak.  
El/la solicitante NO se encuentra al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias impuestas por las disposiciones vigentes y/o con la Seguridad Social, y/o con el Ayuntamiento de Sondika.**Dirulaguntzen itzulerari dagokionez: / Respecto al reintegro de subvenciones:**Eskatzaileak EZ duela inongo zorrik dirulaguntzak itzuli behar izateagatik.  
El/la solicitante NO tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.Eskatzaileak BAI dituela zorrak dirulaguntzak itzuli behar izateagatik.  
El/la solicitante SI tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.**Dirulaguntzen onuradun izateko debekuei dagokionez: / Respecto a las prohibiciones para ser beneficiario/a de subvenciones:**Eskatzailea Dirulaguntzeterako Lege Orokorraren 13.2. artikulua onuradun izateko aurreikusitako debekuren batean ere ez dagoela sartuta.  
El/la solicitante NO se halla incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiario/a previstas en el artículo 13.2 de la Ley General de Subvenciones.Eskatzailea Dirulaguntzeterako Lege Orokorraren 13.2. artikulua onuradun izateko aurreikusitako debekuren batean BAI dagoela sartuta.  
El/la solicitante SI se halla incurso en alguna de las prohibiciones para ser beneficiario/a previstas en el artículo 13.2 de la Ley General de Subvenciones.**Oharrak / Observaciones**

--



**Jakinarazteko modua / Forma de notificación**

<input type="checkbox"/>	Posta bidez (helbidea aukeratu) / Correo ordinario (seleccionar dirección) <input type="checkbox"/> Eskatzailearen helbidea / Domicilio de el/la solicitante <input type="checkbox"/> Legezko ordezkariaren helbidea / Domicilio de el/la representante legal <input type="checkbox"/> Beste bat / Otro:
<input type="checkbox"/>	Elektronikoki - Herritarren postontzia (NANe, IZENPE): adierazi jakinarazpen-bidalketaren abisurako e-maila. Electrónicamente - Buzón ciudadano/a (DNle, IZENPE): indicar email para recibir aviso de envío de notificación. e-maila:

**Lege oharra: datu pertsonalen babesa**

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza sailari euskarri informatikoa eskaintzean zehar, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamenduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikulua eta a) eta e) letretan.

Tratamenduaren arduraduna: Eibarko Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza Saila.

Telefonoa: 944 535 010.

Jakinaren gainean nago, legez:

- Nik emandako datuak goian adierazitako tratamenduan sartu eta zehaztutako helbururako erabiliko direla.
- Emandako datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko, datuak eramateko, datuen aurka egiteko edo datuen tratamenduari mugak jartzeko eskubidea erabili ahal dudala posta bidez, elektronikoki ([www.sondika.eus](http://www.sondika.eus)) edo Goronda Gane Bidean, 1 (Sondika).

**Advertencia legal: protección de datos personales**

El tratamiento de la información tendrá en cuenta lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, y demás disposiciones que resulten de aplicación.

Los datos personales serán tratados con la finalidad de dar soporte informático al departamento de desarrollo económico, empleo e innovación, en base al consentimiento otorgado por la persona interesada y al ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento contemplados, respectivamente, en las letras a) y e) del artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 del personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Responsable del tratamiento: Área de Desarrollo Económico, Empleo e Innovación del Ayuntamiento de Sondika.

Teléfono 944 535 010.

Me doy por advertido/a legalmente de que:

- Los datos facilitados se integrarán en el tratamiento de referencia y se utilizarán para la finalidad indicada.
- Puedo ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, portabilidad, oposición o limitación al tratamiento de los datos facilitados a través del correo, electrónicamente ([www.sondika.eus](http://www.sondika.eus)) o en Goronda Gane Bidea, 1 (Sondika).

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura eta data  
Firma de el/la solicitante o representante legal y fecha

**Aurkeztu beharreko agiriak**

Dirulaguntza eskaerak deialdian ezarritako epean aurkeztu behar dira. Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Langabezian edo enplegu-hobekuntzarako dauden pertsonen prestakuntza-ekintzak egiteko dirulaguntzaren eskaera-orria behar bezala beteta (eredua Udalaren webgunean dago eskuragarri, [www.sondika.eus](http://www.sondika.eus)).
- b) Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- c) Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).
- d) Banku-kontuaren titulartasuna frogatzen duen agiria; eskatzaileak izan behar du kontuaren titularrak. Agiri hauetako edozeinek balio du horretarako: Laburpen bankarioa; aurrezki-libreta; banke-txeak luzatutako ziurtagiria edo «Titular-kontua» izeneko orria (udal webgunean, [www.sondika.eus](http://www.sondika.eus), eskuragarri) behar bezala beteta banketxeak emandako zigiluarekin.
- e) Prestakuntza-ekintzan matrikulatu izanaren orria.
- f) Langabezian egonez gero, izena emandako aldien ziurtagiria / txostena (LANBIDEk emana) edo Lan-ibilbidea txostena.
- g) Enplegu-hobekuntzarako izena emanda egonez gero, Lan-ibilbidea ziurtagiria.
- h) «Egokitasun kontrastea» orria «Egokia» emaitzarekin (Egaz Txorierri emana).

**Documentación a presentar**

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo indicado en la convocatoria. Esta es la documentación a presentar:

- a) Solicitud de subvención para que personas desempleadas o en situación de mejora de empleo cursen acciones formativas debidamente cumplimentada (modelo disponible en la web municipal, [www.sondika.eus](http://www.sondika.eus)).
- b) DNI o documento equivalente de la persona solicitante.
- c) En caso de representación legal, DNI o documento equivalente de el/la representante legal y acreditación documental de la representación. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho (poderes notariales, escrituras...).
- d) Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de el/la solicitante, que tiene que coincidir con la identidad de la persona solicitante. Será válido, cualquiera de los siguientes documentos: extracto bancario; libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o el impreso «Titular-cuenta» (disponible en la página web municipal, [www.sondika.eus](http://www.sondika.eus)) debidamente cumplimentado y sellado por la entidad bancaria.
- e) Hoja de matrícula en la acción formativa.
- f) En caso de estar en situación de desempleo, certificado/informe de periodos de inscripción emitidos por LANBIDE o informe de Vidal Laboral.
- g) En caso de estar en situación de mejora de empleo, informe de Vida laboral.
- h) Hoja «Contraste de idoneidad» con valoración «Apta» (emitida por Egaz Txorierri).